

Pertsona gorrekin komunikatzeko praktika batzuk:

- Pertsona gorraren aurrean jarri hitz egitean, ezpainen irakurketa errazteko eta arreta berezia jar ezazu zure aurpegia (eta ahoa) ikusgai dagoela ziurtatzeko. kontaktu bisuala mantentzea garrantzizkoa da.
- Aurpegi-adierazpenek bat etorri behar dute esaten duzunaren duzunaren edukiarekin. Aurpegi zein gorputz adierazpenak erabil ditzakezu komunikazioa errazte aldera.
- Argi eta naturalki hitz egin behar da, hitzak ondo ahoskatuz. Ez da beharrezkoa geldo hitz egitea, gehiegi ahoskatzea edo oihukatzea. Honek, askotan, ulermena hobetu beharrean kaltetu egiten du, aurpegiak bere forma galdu eta ezpainak irakurtzea zailago bihurtzen baita.
- Pertsona gorra zerbaite ulertuko ez balu, hobe da esaldia beste hitz batzuekin birformulatzea berba berdina behin eta berriz errepikatzea baino.
- Ziurtatu ingurunea egokia izateaz, hots, hesi bisualik ez dagoela eta argiztapen egokia duela.
- Pertsona gorra zugar arreta jartzea nahi izanez gero, eskua mugitu dezakezu, edo, bere ikuseremutik kanpo baldin bazaude, berarengana hurbildu eta sorbalda leunki ukitu diezaiokezu, izutzea ekiditeko.

- Ahal den neurrian, ingurune-zarata saihesten saiatu. Pertsona anitzek hipoakusia pairatzen dute, hau da, gorreria maila ezberdinak dituzte eta inguruneko zaratak ulermena asko eragotzi dezake.
- Beti errespetuz trata ezazu pertsona gorra edo entzumen zailtasunak dituena!